

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean, gizakiok, gure buruari bakarra begiratzen diogu, soilik guretzat onuragarriak diren gauzak egiten ditugu urrunago begiratu gabe, izan ere, pertsona gehienok ez dugu desgaitasunik eta beraz ez dakigu zer den horrekin bizitzea, baina, nolakoa da benetan desgaitasunen bat daukan pertsona baten egunerokotasuna? UZDY taldeari, interesgarria iruditu zaigu gai honi buruz hausnartzea. Gaur egungo gizartean 314 milio pertsona itsu daudela jakin dugu, guk ez dugu imaginatzen nolakoa izango litzatekeen gure bizitza itsuak izanik, ezer ez ikusi gabe eta mundua nolakoa den jakin gabe.

Egoera honetan dauden pertsonen laguntza bat eskeini nahi diegu eta gure produktua honetan datza: itsuei gauzak erraztuko dizkion makil bat egitea. Guk, produktu honekin, itsuei beraien egunerokotasuna erraztea lortu nahi dugu. Makil arrunt bat izan beharrean, makilak asistente bat edukiko du, horren bidez alatbozak esan alko dizu nun zauden momentu bakoitzean eta kalean soinu asko badago aurikularrak konektatu ahalko dituzu eta horrela ongi entzun. Honek, istripu eta oztopo asko saihestu ditzake, eta beraiek hobeto moldatu daitezke, eta segurtasuna eman diezaieke kaletik ibiltzerako orduan.

BlindStick erosiz gero, itsuek ez lukete inorren laguntzarik beharko herrietan, hirietan ala toki publikoetan mugitzeko. Hortaz aparte egiten ari diren ibilbidea zuzen egiten ari direlakoaren segurtasuna eta konfiantza edukiko lukete.

